


DEBEGESA, EDUKEIBAR, SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASEKO UDALA, ETA ELGOIBARKO UDALA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO FORMAZIO, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROIEKTUA, HIRI-BERRONERATZEKO "DEBABARRENA BERRITZEN" PROIEKTUARI LOTURIK DAGOENA, GARATZEKO, EUSKADIKO 2022-2022 ALDIRAKO INBERTSIO ESTRATEGIKOEN INBERTSIO PLANEN ESPARRUAREN BAITAN


Eibarren, 2022ko abenduaren 21ean

BILDU DIRA:



Alde batetik, IKER ALDAZABAL JAUNA, 20590 Soraluze-Placencia de las Armaseko Santa Ana kalea 1ean dagoen eta P2007000I zenbakidun IFZ duen SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASEKO UDALAREN (aurrerantzean, **SORALUZEKO UDALA**) izenean eta ordezkartzan diharduena. Udal korporazioko Alkate gisa dihardu, eta bere egiten ditu erakundearen lege ordezkartzaren eskumenak, indarrean dauden arau-xedapenek ematen dizkietenak.

ANE BEITIA ARRIOLA ANDREA, 20870 Elgoibarko Santa Ana kalea 2an dagoen eta P2003300G zenbakidun IFZ duen ELGOIBARKO UDALAREN (aurrerantzean, **ELGOIBARKO UDALA**) diharduena. Udal korporazioko Alkate gisa dihardu, eta bere egiten ditu erakundearen lege ordezkartzaren eskumenak, indarrean dauden arau-xedapenek ematen dizkietenak.





JUAN ÁNGEL BALBÁS EGEA JAUNA, adinez nagusia, zenbakidun NANA duena, 20600 Eibarko Azitain Industrialdea 3 Bis zenbakian dagoen DEBEGESA DEBABARRENEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO ELKARTEAREN (aurrerantzean, **DEBEGESA**) izenean eta ordezkartzan diharduena, erakundearen Zuzendari Nagusi gisa, Carlos del Valle Muñoz-Cabo Eibarko notario jaunaren aurrean, 1989ko otsailaren 23an eman zen eskriturari jarraikiz. IFZ zk.: A-20098349.

ASIER QUINTANA LARREATEGUI JAUNA, zenbakidun NANA duena, B75175422 zenbakidun IFZ duen eta 20600 Eibarko (Gipuzkoa) Azitain 3-1 zenbakian dagoen EDUKEIBAR SLU(aurrerantzean, **EDUKEIBAR**) merkataritza konpainiaren izenean eta ordezkartzan diharduena, arduradun gisa.

Bertaratutakoek aditzera eman dute ez dituztela euren eskumenak baliogabetu, ezta mugatu edo eten ere, eta ez direla aldatu ordezkartzen dituzten erakundeen ahalmenen inguruabarrak.

Hitzarmen hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta xede horrekin, honako hau


ADIERAZTEN DUTE:



I. Sektorre Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua ezartzen duenez, hitzarmenak ondorio juridikoak dituzten akordioak dira, hain zuzen, xede erkide baterako, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuko subjektuekin batera egiten dituztenak.


II. Europako Parlamentuaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Kontseiluaren Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, Espainiako antolamendu juridikora aldatzen dituen azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 6. artikulua ezartzen duenez, arestian aipatutako Legearen eremutik kanpo geldituko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren mende dauden pertsonekin egiten dituzten hitzarmenak, baldin eta hitzarmen horien edukia Lege horretan edo administrazio arau berezietan araututako kontratuen edukian sartuta ez badago.

III. Debabarreneko Gizarteratze Sarea eskualde mailako lankidetzarako eta elkarlanerako egitura da, lanerako formula bat garatzea xede duena, baztertze egoeran dauden pertsona helduekin formaziorako eta enplegurako prozesuak edo ibilbideak sortzeko premiari erantzun eraginkorra eman ahal izateko.



IV. Bertaratutako erakundeak arestian adierazitako Sarean parte hartzen duten kideak dira, eta lankidetzan dihardute, urte askotatik hona, zaugarritasun edo gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsona guztientzako formazioa eta gizarteratze prozesuak abian jartzeko aukera bermatzeko, formazioan, trebakuntzan, jabeakuntzan eta garapen pertsonalean oinarriturik, lan merkatuan sartzeko dituzten baliabideak, tresnak eta gaitasunak bultzatzeko. Hori dela eta, lankidetzan hitzarmen bat sinatu nahi dute xede erkide bat lortzeko, hau da, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden gazteak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko ibilbideari buruzko proiektua gauzatzeko (**DEBABARRENA BERRITZEN**), zeina Hitzarmen honen I. ERANSKINEAN laburbiltzen baita.

V. Hitzarmen hau **GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO PRESTAKUNTZA, ENPLEGU ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROGRAMAN** txertatzen da eta **HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUARI LOTURIK DAGO EUSKADIKO 2022-2022 ALDIRAKO INBERTSIO ESTRATEGIKOEN INBERTSIO PLANEN ESPARRUAREN BAITAN**. Proiektu hau *Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak* sustatzen eta finantzatzen du, eta horren oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia III. eranskin moduan jasotzen dira, "GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO FORMAZIO, ENPLEGU ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROIEKTUAK, 2022-2024ko INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN BAITAN, HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUEI LOTURIK DAUDENAK, ESKATZEKO INFORMAZIO OINARRIAK" izeneko dokumentuan.



VI. Proiektu honen helburu nagusia da egoera txarrean eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen lan munduan sartzen laguntzea, eta, horretarako, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak prestatzeko, orientatzeko eta kontratatzeko prozesu bat egitea.

VII. 2019ko maiatzaren 16an, DEBEGESAK eta Eibarko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten Azitain 2 zenbakian dagoen eta Eibarko Udalaren jabetzakoa den Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuaren eraikina lagatzeko, gizarte bazterketa egoeran eta gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonekin formazio proiektuak egiteko.

VIII. EDUKEIBAR Eibarko (Azitain) Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutua kudeatzen duen erakundea da 2017. urtetik hona, eta Eraikuntzaren arloan espezializatutako formazioa eskaintzen duen eta proiektuan eskainiko diren formazioentzat LANBIDEK homologatutako guneak eta irakasleak dituen ikastetxe

bakarra da eskualdean eta inguruetan. Horretaz gain, Debabarreneko gizarteratzeko Sarearen kide aktiboa da sorreratik.

IX. EDUKEIBARREN xedea da gizarte bazterketa arriskuan dauden gazte eta helduak formatzea eta gizarteratzea, eta, horretarako, lan mundura hurbiltzen eta gizarteratzen lagunduko dieten espezialitate desberdinetako ikaskuntzak garatzea; izan ere, laguntza hau ezinbestekotzat jotzen da erabateko gizarteratzerako,


X. 2019ko uztailaren 29an, DEBEGESAK eta EDUKEIBARREK hitzarmen bat sinatu zuten Eibarko (Azitain) Oinarrizko Lanbide Heziketarako Institutuaren eraikinaren ERABILERA hiru urtez DOHAINIK LAGATZEKO. Hitzarmen hori beste urte baterako luzatu da.

XI. Proiektu honen finantzazioa hitzarmen honen II. ERANSKINEAN aurreikusitako baldintzetan egingo da.

XII. Horregatik guztiagatik, bertaratutako alderdiek proposatutako xede erkidea lortzeko, Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatzen dute, honako baldintza hauen arabera:


BALDINTZAK

LEHENENGOA.- XEDEA



Hitzarmen honen xedea da hitzarmena sinatzen duten alderdien arteko lankidetzarako oinarriak ezartzea Hitzarmen honen I. Eranskinean ageri den proiektu hau garatzeko xede erkidea betetzeko: **“DEBABARRENA BERRITZEN”**, GIZARTERATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO FORMAZIO, ENPLEGU, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROGRAMA, **EZOZIA BERRITZEN eta SIGMAKO (OLASOGAIN) ETXEBIZITZAK** HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUARI LOTURIK DAGOENA, EUSKADIKO 2022-2024ko INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN ESPARRUAREN BAITAN.

BIGARRENA.- DEBEGESAREKIKO LANKIDETZA



Hitzarmen honi jarraikiz, DEBEGESAK bere burua behartuko du Hitzarmen honen adierazpen atalean azaldutako xede erkidea lortzeko lankidetzan aritzera. Horretarako, honako jarduera hauek egingo ditu:

- Azitainen dagoen formaziorako lokalaren erabilera lagatzea, eta, horretaz gain, finantzazioa ematea.
- Proiektuan inplikaturako eragileen artean programaren koordinazio eta kudeaketa orokorra egitea: definitzea, abian jartzea eta planifikatzea.
- Jarduera guztiak eta proiektua exekutatzekeo jarri diren baliabide guztiak koordinatzea eta kontrolatzea.
- Partaideak erakartzeko eta aukeratzeko lanak koordinatzea.
- Proiektuaren kudeaketa ekonomikoa egitea: finantzazioa eskatzea (eskaerari buruzko memoria prestatzea), proiektuaren finantza kudeaketa egitea, kobratzea eta ordaintzea, kontratuak eta hitzarmenak egitea, proiektua bukatutakoan finantza erakundeen aurrean gastuak justifikatzea erreferentziazko dekretuan ezarritako epeetan. Era berean, udal biek proiektuaren kudeaketa eta erabilitako materialak direla eta egin duten ekarpen ekonomikoaren ondorioz egin den gastua justifikatzea
- Lan orientaziorako programa bat egitea, onuradunei zuzenduko zaiena

- g) Formaziorako bekak kudeatzea.
- h) Parte hartzen duten eragileekin batera azken ebaluazioa eta azken memoria egitea, justifikazioa egitea eta finantza erakundeen aurrean aurkeztea.


HIRUGARRENA.- EDUKEIBAR SL-REN LANKIDETZA

Hitzarmen honi jarraikiz, **EDUKEIBARREK** bere burua behartuko du Hitzarmen honen adierazpen atalean azaldutako xede erkidea lortzeko lankidetzan aritzera. Horretarako, honako jarduera hauek egingo ditu:

- a) Irakasleen prestakuntza ekintzak eskaintzea eta antolatzea.
- b) Programa koordinatzen parte hartzea, proiektuan parte hartzen duten erakunde guztiekin batera.
- c) Parte hartzen duten pertsonak erakartzen, aukeratzen eta haien hasierako diagnosis egiten laguntzea.
- d) Kualifikaziorako prestakuntzako homologatzeko beharrezkoak diren baimenak iragartzea eta Lanbideren webgunean haien publikitatea egitea.
- e) Kualifikaziorako formazioa eskaintzea: 1. mailako Lanbide Ziurtagiria: EOCJ0311 Estaldura arinen eta eraikuntza tekniken oinarriko eragiketak. Formazio hau, parte-hartzaileek akreditazio ofiziala lortu ahal izan dezaten, homologatutako lokaletan eta Lanbidek kreditatutako irakasleekin egingo da Eibarko (Azitain) Oinarriko Lanbide Heziketarako Udal Institutuan. Sartuta daude suntsikorren kostuak eta gastu arruntak.
- f) Bi edizioetan, 10 hilabetez, ikas-ekinezko prestakuntza kontratu batekin, parte hartuko duten pertsonak kontratatzea (12 edizio bakoitzean), lan erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2012 Errege Dekretu-legearen arabera. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65, enplegurako; hala ere, kontratatutako pertsonak jaso behar duten gutxienezko ordainsaria guztizko soldata gordinaren % 75ekoa izango da. Kontratazio fasea hasierako formazioa egin ostean hasiko da.
- g) Formazioari eskainitako atalean (lanaldiaren % 35), kanpoko isolamendu termikoko Sistemetan (SATE) espezializatzeko hainbat formakuntza egitea. Sartuta daude suntsikorren kostuak eta gastu arruntak.
- h) Proiektuaren geletan prestakuntza eskaintzeko egokiak izango diren ekipamenduak jartzea.
- i) Emaizak ebaluatzen, azken memoria egiten, e.a. laguntzea
- j) Formazioa prestatzea eta koordinatzea, era egokian garatu dadin: ekipamenduak, gelak, materialak, sinadura-orriak e.a. egunero prestatzea. Sartuta dago EP kudeatzea (Prestakuntzarako ekimen pribatua onartzea) eta lanbide ziurtagiriarentzat beharrezkoak diren beste zeregin administratibo batzuk egitea.
- k) Lan merkatuaren azterketa, bitartekaritza lanak eta lanpostu hutsak bilatzeko lana egitea. Enprekin harremanetan jartzea, eskaintzak erakartzea/praktikak/hitzarmenak egitea, e.a.
- l) Proiektuaren azken ebaluazioan eta azken memoria egiten laguntzea


LAUGARRENA.- SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASEKO UDALAREN LANKIDETZA

Hitzarmen honi jarraikiz, **SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASEKO UDALAK** bere burua behartuko du Hitzarmen honen adierazpen atalean azaldutako xede erkidea lortzeko lankidetzan aritzera. Horretarako, honako jarduera hauek egingo ditu:

- 
- Programa koordinatzen parte hartzea, proiektuan parte hartzen duten erakunde guztiekin batera.
 - Udalaren jabetzakoa den eta Olaldea inguruko (Santa Ana kalea) garajeen Eraikinean dagoen lokala DEBEGESARI lagatzea prestakuntza praktikoa egiteko pertsona onuradunen kontratazio fasean. DEBEGESAK Gizarteratzeko eta Lan Munduan Sartzeko Sarea osatzen duten erakunde guztiekin partekatu ahal izango du arestiko lokalaren erabilera, programa behar bezala garatzeko.
 - Arestian aipatutako lokala Lanbidek prestakuntza guneak homologatzeko eskatzen dituen baldintzetara egokitzeko proiektua egitea: irisgarritasuna, komun egokituak, e.a. Obra hori proiektuko ikasleek exekutatu dute kontratazio faseak dirauen bitartean.
 - Lokala egokitzeko obra exekutatuko beharrezkoak diren materiala eta bertan jarriko diren altzariak jartzea.
 - Hornidura eta kontsumo instalazioen konexioa egitea: ura, elektrizitatea, telekomunikazioak, e.a.
 - Behar denean, udalaren espazioak lagatzea jarduerak, bilerak, orientazio saioak, e.a. egiteko.

BOSGARRENA.- ELGOIBARKO UDALAREN LANKIDETZA.

Hitzarmen honi jarraikiz, **ELGOIBARKO UDALAK** bere burua behartuko du Hitzarmen honen adierazpen atalean azaldutako xede erkidea lortzeko lankidetzan aritzera. Horretarako, honako jarduera hauek egingo ditu:

- 
- Programa koordinatzen eta horren jarraipena egiten parte hartzea, proiektuan parte hartzen duten erakunde guztiekin batera.
 - Udalaren jabetzakoa den eta SIGMAN (Olasogain) dagoen lokala DEBEGESARI lagatzea prestakuntza praktikoa egiteko pertsona onuradunen kontratazio fasean. DEBEGESAK Gizarteratzeko eta Lan Munduan Sartzeko Sarea osatzen duten erakunde guztiekin partekatu ahal izango du arestiko lokalaren erabilera, programa behar bezala garatzeko.
 - Beharrezkoa izanez gero, arestian aipatutako lokala egokitzeko proiektua egitea. Obra hori proiektuko ikasleek exekutatu dute kontratazio faseak dirauen bitartean.
 - Obra egiteko beharrezkoak diren materialak jartzea.
 - Hornidura eta kontsumo instalazioen konexioa egitea: ura, elektrizitatea, telekomunikazioak, e.a.
 - Behar denean, udalaren espazioak lagatzea jarduerak, bilerak, orientazio saioak, e.a. egiteko.





DEBEBARRENEKO
GIZARTERATZE
eta LANERATZE
AREA

Debegesa



SORALUZETAKO
UDALA



SEIGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPIEN BATZORDEA

1.- Lankidetzaren Hitzarmen hau behar bezala betetzen dela ziurtatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonak osatuko dute, hitzarmena sinatzen duen erakunde bakoitzeko pertsona batek.

2.- Hona hemen Jarraipen Batzordearen zereginak:

- Lankidetzaren Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, sor daitezkeen zalantza guztiak ebaztea, akordioak exekutatzean edo interpretatzean sor daitezkeen desadostasunei dagozkienak.
- I. ERANSKINEAN deskribatutako jarduerak eta proiektua interpretatzea eta zehaztea.
- Hitzarmen hau exekutatzean izan den jarduera ebaluatzea.
- Zehaztutako helburuen eta laneko planaren betetze maila baloratzea.

3.- DEBEGESAK izendatzen duen pertsona izango da Batzordeko buru.

4.- Batzordea Lankidetzaren Hitzarmenaren jarraipena egiteko beharrezkoa den guztietan bilduko da, hitzarmena sinatu duen alderdietakoren batek hala eskatuz gero.

5.- Beharrezkotzat jotzen diren pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, bilera bakoitzean aztertu behar diren gaien arabera.

6.- Akordioak batzordekideen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira, eta DEBEGESAK bere antolakuntzan diharduten langileen artean izendatzen duen pertsonak parte hartuko du idazkari tekniko gisa.

ZAZPIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Hitzarmena sinatzen duten erakundeak erantzukideak izango dira lankidetzan eskainiko duten zerbitzua erabiltzen duten pertsonen datu pertsonalak tratatzeko orduan, eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo honetan ezarri beharrezkoa den gainerako antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera jardungo dute.

ZORTZIGARRENA.- PROIEKTUEN ETA JARDUEREN ZABALKUNDEA

Lankidetzaren xede diren proiektuen parte diren jarduera guztiak zabaltzeko orduan, berriaz adieraziko da hitzarmena sinatu duten erakunde laguntzaileen partaidetza, baita proiektua finantzatzen duen erakundearen partaidetza ere. Horretarako, DEBEGESAK jarraibideak emango ditu bere erakunde irudiak eta finantza erakundearenak erabiltzeko.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

1.- Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.

2.- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek luzatzeko akordioa hartu ahal izango dute.

[Handwritten signature]

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA

Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, hitzarmena ezartzean sor daitezkeen arazo guztiak ebazteko izan daitezkeen ondorioekin.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA

1.- Hitzarmena sinatzen duen alderdietakoren batek hitzarmena betetzen ez baldin badu, suntsitu egingo da, dagokion alderdiari, gutxienez, hilabeteko aurrerapenarekin idatzizko adierazpena egin ondoren.

2.- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdientzat, hitzarmena suntsitzeko arrazoiak izango dira hitzarmenean jasotako baldintzak ez betetzea, baita, hitzarmenaren izaeraren ondorioz, indarrean dagoen legedian jasotzen diren baldintzak ez betetzea ere.

3.- Edonola ere, alderdiek hitzematzen dute bukatu egingo dituztela hitzarmenaren suntsiketa jakinarazten den unean abian dauden ekintzak.

HAMABIGARRENA.- ALDAKETAK

Hitzarmen honetan edozein aldaketa izateko, hitzarmena sinatzen duten erakundeen organoen onarpena izan beharko da.

HAMAHIRUGARRENA.- DESADOSTASUNAK EBAZTEA

Hemen adostutakoaren ondorioetarako edo adostutakoa interpretatzeko, aldatzeko, ebazteko edo betetzeko alderdien artean sor daitezkeen desadostasun guztiak ebazteko, berariaz ezartzen da men egingo diotela Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioari, hitzarmenaren izaera administratiboa kontuan izanik.

Eta arestian adierazitakoarekiko onarpena adierazteko, alderdi sinatzaileek sinatzen duten bitarteko honen lau ale sinatzen dituzte ondorio bakarrerako goiburuan adierazitako toki-egunetan. Sinatutako aleetako bat alderdi bakoitzaren esku geldituko da.

IZ. DEBEGESA

IZ. EDUKEIBAR

IZ. SORALUZE-PLACENCIA DE LAS
ARMASEKO UDALA

IZ. ELGOIBARKO UDALA

I. ERANSKINA

PROIEKTUAREN LABURPENEA

“**DEBABARRENA BERRITZEN**”, GIZARTERATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO FORMAZIO, ENPLEGU, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROGRAMA, **EZOZIA BERRITZEN eta SIGMAKO (OLASOGAIN) ETXEBIZITZAK** HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUARI LOTURIK DAGOENA, EUSKADIKO 2022-2024ko INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN ESPARRUAREN BAITAN.

Proiektu honen baitan, 16 eta 30 urte arteko 12 gaztez osatutako **bi talde** prestatu eta lagunduko dira **jarraian**, enplegu bila dabiltzanak, bazterketa arriskuan eta gizarte bazterketa egoeran daudenak.

Edizio bietan prestakuntza programak formatu bera izango du. Hainbat prestakuntza tekniko eskainiko dira eraikuntzaren arloan: eraberritze eraginkorra eta iraunkorra. Programa hori osatzeko gazte horiek 10 hilabeterako kontratatuko dira. Era berean, gazte horiek lanbide arloko orientabidea eta akonpainamendua jasoko dituzte, proiektuak dirauen bitartean, hau da, gutxi gorabehera 12 hilabetez edizio bakoitzeko.

Hona hemen **edizio bakoitzaren ibilbidea**:

- **Hasierako faseak 9 aste iraungo du. Egunean 6 ordu egingo dira**, eta ordu horietan Prestakuntza kualifikatzaile bat emango da: 1. mailako Lanbide Ziurtagiria: **EOCJ0311 Estaldura arinen eta eraikuntza tekniken oinarrizko eragiketak**.

Prestakuntza honen xedea da parte-hartzaileek akreditazio ofiziala lortu ahal izatea. Homologatutako lokaletan eta Lanbidek kreditatutako irakasleekin eskainiko da **Eibarko (Azitain) Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuan**. Helburua da bigarren ediziorako Soraluzen (Olaldea-Santa Ana kalea) eraberrituko eta egokituko diren lokalak homologatu ahal izatea, proiektuan parte hartzen duten pertsonen kontratazio fasean egiten duten lanaren bitartez, eta prestakuntza homologatua Soraluzeko lokalean bertan egin ahal izatea.

- Bigarren fasea **10 hilabeteko kontratazioa** izango da, ikas-ekinezko modalitatean, lan erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2012 Errege Dekretu-legearen arabera.

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65, enplegurako; hala ere, kontratatutako pertsonen jaso behar duten gutxieneko ordainsaria guztizko soldata gordinaren % 75ekoa izango da.

Kontratazio fasea hasierako formazioa egin ostean hasiko da.

Prestakuntzari eskainitako atalean (lanaldiaren % 35), **Kanpoaldeko isolamendu termikoko sistemetan (SATE)** espezializatzeko hainbat formazio egingo dira. Formazio honek eskaera handia du, eta hiri-berroneratzeko programaren helburuekin bat egiten du, iraunkortasunari eta energia efizientziari dagokionez.


Kontratazio fasean eraberritzeko eta egokitzeko hainbat lan erreale egingo dira, ikasten joan diren teknikak aplikatzeko: igeltserotza, pladurra jartzea, barrualdetik eta kanpoaldetik isolamendua jartzea, margotzea, sabai aizunak jartzea, zoruak jartzea, iturgintza, arotzeria eta elektrizitatea.

Lan horiek Soraluze-Placencia de las Armaseko udalak lagatako inguru errealean egingo dira (Olaldean dauden garajeak), Ezozibideko hiri-berroneratzerako proiektuei loturiko beste gune batzuetan eta Elgoibarko SIGMA (Olasogain) auzoan dagoen udal gunean, komunitatearen, formazioaren eta kulturaren arloko erabileretarako erabili ahal izateko gune publikoak gaitzeko helburuarekin.

- Formazioaren arloko erabilerak: homologatu daitezkeen guneak gaitzea, hainbat espezialitateko lanbide Ziurtagiriak eman ahal izateko.
- Kulturaren arloko erabilerak: musika eta antzerki taldeek entseatzeko guneak.
- Erabilera komunitarioak: auzotarren bilerak eta ekitaldiak. Sigma auzoko bulego gisa erabiltzea.

Ikasleek praktikan jarriko dute lanbide Ziurtagiria eta espezializazio ikastaroak eman diren bitartean ikasi dutena, eta iturgintzarekin, igeltserotzarekin, arotzeriarekin, elektrizitatearekin, Pladurraren eta zoruen instalazioarekin eta abarrekin zerikusia duten lanak egingo dituzte.

Formazio horren guztiaren xedea da eraikuntzaren sektoreak gazteak eskura izatea, **iraunkortasunari eta energia eraginkortasunari dagokionez**, gaur egun eta etorkizunean, **eraikinak eraberritzeko arloan** izango diren premientzat prestatuta egongo direnak.



II. ERANSKINA: Finantzaketa eta funtsen aplikazioa

2022-2024					
PARTIDAK	FINANTZAZIOA DEBEGESA	FINANTZAZIOA SORALUZEKO UDALA	FINANTZAZIOA ELGOIBARKO UDALA	GUZTIRA	
Taldeakoko hasierako formazioa (CP EOCJ0311 Estaldura arinen eta eraikuntzako tekniken oinarriko eragiketak)	59.400,00			59.400,00	
Prozesuan zehar orientatzea eta laguntzea	8.160,00			8.160,00	
Kontratuak dirauen bitartean prestatzea	107.800,00			107.800,00	
Koordinatzailea / Taldeko arduraduna lanpostuetan	66.500,00			66.500,00	
Parte hartzekeo pizgarriak: (Garralorako edo hasierako ikastaroan sortzen diren beste gastu batzuetarako beka)	8.640,00			8.640,00	
Ikas-ekinezko prestakuntzan parte hartuko duten kontratazioen kostua	220.290,00			220.290,00	
Gizarte Segurantzaren kostuak, enpresarenak, partaide taldeari dagozkionak % 100eko HOBARIA	0,00			0,00	
Zeharkako kostuak	14.123,70			14.123,70	
Obrako materialen eta altzarien kostua (hala badagokio) (*)		Zenbatesteko	Zenbatesteko	Zenbatesteko	
Proiektua kudeatzea eta koordinatzea		8.000,00	8.000,00	16.000,00	
PROIEKTUA GUZTIRA	484.913,70	8.000,00	8.000,00	500.913,70	

(*) Udalek bidezkoa den eran jarritako materialak



**"DEBABARRENA BERRITZEN" (2 edizio)
2022-2024**

PARTIDAK / Funtsen aplikazioa	SORALUZE- PLACENCIA DE LAS ARMASEKO UDALA	ELGOIBARKO UDALA	EDUKEIBARREN EKINTZAK	DEBEGESAREN EKINTZAK	GUZTIRA
Taldekako hasierako formazioa (CP EOCJ0311 Estandura arinen eta eraikuntzako tekniken oinarritzko eragiketak)			59.400,00		59.400,00
Prozesuan zehar orientatzea eta laguntzea				8.160,00	8.160,00
Kontratuak dirauen bitartean prestatzea			107.800,00		107.800,00
Koordinatzailea / Taldeko arduraduna lanpostuetan			66.500,00		66.500,00
Parte hartzeko pizgarriak: (Garraiorako edo hasierako ikastaroan sortzen diren beste gastu batzuetarako beka)				8.640,00	8.640,00
Ikas-ekinezko prestakuntzan parte hartuko dutenen kontratazioen kostua			220.290,00		220.290,00
Gizarte Segurantzaren kostuak, enpresarenak, partaide taldeari dagozkionak % 100eko HOBARIA				0,00	0,00
Zeharkako beste gastu batzuk				14.123,70	14.123,70
Obrako materialen eta altzarien kostua (hala badagokio) (*)	Zenbatesteko	Zenbatesteko			
Proiektua kudeatzea eta koordinatzea				16.000,00	16.000,00
PROIEKTUA GUZTIRA	0,00	0,00	453.990,00	46.923,70	500.913,70

(*) Udalek bidezkoa den eran jarritako materialak



III. ERANSKINA

“DEBABARRENA BERRITZEN”, GIZARATERATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO FORMAZIO, ENPLEGU, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROGRAMA, EZOZIA BERRITZEN eta SIGMAKO (OLASOGAIN) ETXEBIZITZAK HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUARI LOTURIK DAGOENA, EUSKADIKO 2022-2024ko INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN ESPARRUAREN BAITAN.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak lan munduan sartzeko programak sustatzen eta finantzatzen ditu formaziorako, orientaziorako, laguntzarako eta enplegurako ekintzen bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari hiri-berroneratzeko proiektuak aurkezten dizkioten euskal udalerrietan.

Udalak gonbidatzen ditugu horrelako proiektuak, 2022-2024ko inbertsio estrategikoen planaren baitako hiri-berroneratze integralerako proiektuen osagarri diren proiektuak, aurkeztera, baloratuak izan daitezten eta, hala badagokio, Lan eta Enplegu Sailaren dirulaguntza jaso dezaten. Exekuzio aldia 2024ra artekoa izango da, informaziorako oinarri hauetan zehazten diren baldintzen arabera.

1. Proiektuen kokapen geografikoa

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta Lan eta Enplegu Sailari egokituko zaie proiektuak kokatzea, haien esku-hartze planei eta hiria berroneratzeko eta enplegu inklusiborako proiektuen eskaerei jarraikiz.

2. Jarduera esparruak:

- Eraikinak eraberritzea
- Hiria edo gunen narriatuak berroneratzeko obrak
- Hirigune berriak
- Eraikinen eta hiriguneen digitalizazioa edo teknifikazioa
- Gizarteratzeko, komunitatearen garapenerako, zaintzarako eta zahartzeko osasuntsurako proiektuei loturiko guneen edo zerbitzu soziokomunitarioen hobekuntza.
- Iraunkortasunari eta energia eraginkortasunari buruzko proiektua, hiria berroneratzeko edo eraikinak eraberritzeko proiektuetan

3. Onuradunak eta parte hartzeko irizpideak

- Enplegu bila dabiltzan pertsonak. Nagusiki, honako hauek artatuko dira:
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) jasotzen duten eta esku-hartze eremuaren 50 kilometroko radio batean bizi diren pertsonak.
 - Iraupen luzeko enplegu eskatzaileak. Iraupen luzeko enplegu eskatzailetzat jotzen dira, azken 18 hilabetetan, 12 hilabete langabezia duenak. Horretaz gain, langabezia egon beharko dira ekintza honetan parte hartzen duten unean.
- Parte hartzen dutenen taldean, enplegu eske dabiltzan pertsonen kopuruak horretarako bide ematen baldin badu, genero bakoitzaren ordezkaritza parekidea izango da.
- Modu positiboan baloratuko da emakumeak eta gizonak lan merkatuan azpi ordezkatuta dauden lanbideetan aritzea, proiektuen jarduera esparruen arabera. Adibidea: Gizonak “zaintzan” edo emakumeak “eraikuntzan”.

4. Partaidetza kopurua: 10-20 pertsona proiektu bakoitzeko.

5. Parte-hartzaileak aukeratzeko prozesua:

- Tokiko erakundeak enplegu eskaintza egiteko eskaera bat aurkeztuko du Lanbideren Bulegoan proiektuan parte hartuko duten izangaiak aukeratzeko Partaide

taldea osatuko duten pertsonen kopurua adieraziko da, hau da, eskaintzaren lanpostu kopurua (gutxienez 10, eta gehienez, 20 pertsona).

- Inguru horretako Lanbideren bulegoak nahikoa izango den izangai kopuru bat bidaliko dio Tokiko Erakundeari (gutxi gorabehera, eskaintzen den lanpostu kopurua bider 2). Izangai horiek parekatze automatikoaren bidez lortu ahal izango dira, horien prestutasuna egiaztatu ondoren, edo Webgunean egindako eskaintzaren bitartez.
- Tokiko Erakundeak Enplegu eta Inklusio Sailari aurkeztu beharko dio, Lanbideak guztira bidalitako izangaien artetik, partaideak aukeratzeko baliatuko den prozesuaren deskribapena. Prozesu horrek hautatzeko irizpide objektiboak (kuantitatiboak edo kualitatiboak), hautatzeko tresnak eta teknikak eta prozesuaren emaitzak zehaztuko ditu.
- Enplegu eta Inklusio Zuzendaritzak hautaketa prozesua baliozkotu eta onartu egin beharko du exekutatu baino lehen. Behin hautaketa prozesua exekutatuta, tokiko erakundeak hautaketa proposamena aurkeztuko dio Zuzendaritzari eta hautatutako pertsonak zein diren adieraziko dio, erreserban gelditu diren pertsonak eta aukeratu ez dituztenak. Hautatzeko, erreserban uzteko eta ez onartzeko arrazoiak justifikatuko ditu.
- Aukeratutakoak eskaintzaren lanpostu kopuruaren adina izango dira, gutxienez, eta bost erreserba gehituko dira, prestakuntzaren lehenengo 2 asteetan izan daitezkeen bajak estaltzeko.
- Tokiko erakundeak izangaiei aditzera eman beharko die zein baldintzatan bideratuko den Proiektu Pilotua, eta baimen informatua eman beharko dutela bertan parte hartu ahal izateko. Baimena guztiz borondatez eman beharko da beti.
- Proiektuan parte hartzeko baimen informatua eman duten izangaien kopurua eskaintzan eskatu den partaide kopuruaren parekoa denean, proiektuari ekingo zaio.

6. Proiektuaren egitura eta faseak:

Proiektuek bi fase izango dituzte: prestakuntza eta kontratazioa. Horretaz gain, orientazioa eta akonpainamendu integral eta pertsonalizatua aurreikusten da parte-hartzaileentzat proiektuak dirauen bitartean. Proiektu bakoitzaren jarduera programek, guztira, 12 hilabete iraungo dute.

- Hasierako faseak 2 hilabete iraungo du, eta formaziorako izango da erabat.
- Bigarren fasea 10 hilabeteko kontratazioa izango da, ikas-ekinezko modalitatean, lan erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2012 Errege Dekretu-legearen arabera. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65, enplegurako; **hala ere, kontratatutako pertsonak jaso behar duten gutxienezko ordainsaria guztizko soldata gordinaren % 75ekoa izango da.** Kontratazio fasea hasierako formazioa egin ostean hasiko da.

7. Edukiak:

Formazioa

- Prestakuntza prozesuak, nagusiki, formazio kualifikatzailea aurreikusiko du, lanbide egiaztatiriei loturik dagoena. Horretaz gain, beste formazio bat egin ahal izango da oinarriko gaitasunak eskuratzeko, baldin eta proiektua era egokian bideratzeko beharrezkoa bada.
- Proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen bada, Prestakuntza Espezialitatearen Katalogoan agertzen direnez gain, formazio espezialitate gehigarriak eskaini ahal izango dira, edo beste espezialitatearen bat, proiektuarentzat berariaz sortuko dena.
- Formazioa, nagusiki, aurrez aurrekoa izango da.
- Proiektuko formatzaileek formazio espezialitateak arautzen dituen araudian aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte, bereziki, une bakoitzean eskainiko diren lanbide egiaztatirien kasuan.

Kontratazioa

- Kontratazio fasean, proiektuan parte hartzen dutenak proiektuaren onuradun den erakunde sustatzaileak kontratatuko ditu, edo, hala badagokio, proiektua exekutatzeko azpikontratatu diren erakunde laguntzaileak, **ikas-ekinezko formazio kontratuaren modalitatean, indarrean dagoen araudiaren arabera. Bestalde, dagozkion**

ordainsariak jasoko dituzte, erakunde kontratatzailearen erreferentziako hitzarmenaren arabera.

- Enplegurako-formaziorako programa mistoentzako erreferentzia esparrua 818/2021 Errege Dekretua da, irailaren 28koa, Enplegu Sistema Nazionaleko enplegua aktibatze programara erkideak arautzen dituena.
- Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua garatzen duen eta ikas-ekinezko lanbide heziketaren onarriak ezartzen dituen azaroaren 8ko 1529/2012 Dekretuaren 3. atalaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, egiaz egin behar den lanarekin zerikusia duen lanbide heziketako titulurik edo lanbide egiaztagirik ez badago, kontratu horien prestakuntza jarduera Enplegu Zerbitzu Publiko eskudunak, kasu honetan, Lanbide baimendutako prestakuntza edukiek osatu ahal izango dute.
- Proiektuan parte hartzeari utzi ostean, proiektua aprobetxamenduz bukatu duten parte-hartzaileek erakunde sustatzaileak egindako ziurtagiria jasoko dute, non iraupena (proiektuan egin dituzten orduak), eskuratutako prestakuntza teoriko-praktikoaren maila eta egindako prestakuntza moduluak jasoko baitira. Eskuratutako lanbide kualifikazioa edo gaitasuna egiaztatu egingo da Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak lanbide egiaztagirientzat ezartzen duen araudi erregulatzailearen arabera.
- Prestakuntza lanbide ziurtagiriak jasotzera bideratuta ez badago, partaide bakoitzari bertaratze egiaztagiria edo diploma emango zaio, baldin eta prestakuntza ebaluazio positiboarekin gainditu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera, non prestakuntza ekintzaren izendapena, prestakuntzaren edukiak, eskaintzaren modalitatea, prestakuntza egin deneko datak eta jaso diren guztizko prestakuntza orduak jasoko baitira. Egiaztatu ezin den prestakuntza espezialitateen katalogoan ageri den edozein izan daiteke, edo kasuan kasuko proiektuarentzat berariaz diseinatutako prestakuntza ere izan liteke. Kasu horretan, onarpena eskatu beharko diote Lanbideri.
- Hasierako fasean, proiektuaren partaideek, DSBE edo GBS sarrera jasotzen dutenek, prestazio hau jasotzen jarraituko dute, dagozkien baldintzetan.
- Kontratuaren faseak dirauen bitartean, DSBEren onuradun diren partaideek, eskubidea dutenek, enplegurako pizgarriak jasoko dituzte, dagozkien baldintzetan.

Orientazioa eta laguntza

- Proiektua gauzatzen den aldi osoan, parte-hartzaileei orientaziorako eta laguntzarako ekintzak, aholkularitza eta informazio profesionala eskainiko zaizkie, besteren konturako enplegua bilatu dezaten. Jarduera horiek garatzeko, erakunde sustatzaileak langile eta metodo egokiak izan beharko ditu.

Jardueren kronograma, jarraipen plana eta prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa.

8. Erakunde sustatzaile onuradunak, jardueren azpikontratazioa eta dirulaguntzaren xedea:

- Proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen sustatzaile eta onuradun izango dira titularitate publikoko toki erakundeak, baita horien menpeko erakundeak ere, hain zuzen ere, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzaren hiri-berroneratzerako programetan parte hartzen dutenak, baita tokiko erakundeen partaidetza duten tokiko garapenerako erakundeak ere.
- Erakunde sustatzaileek hirugarrenengoekin kontratatu ahal izango dute diruz lagundutako jardueren exekuzioa, beharrezkotzat jotzen duten ehunekora arte, proiektuaren zuzendaritza izan ezik.
- Sustatu nahi den enplegu-prestakuntza proiektu misto orok, nagusiki, herri onurako, interes orokorreko edo gizarte intereseko jarduerak sustatu beharko ditu, lan munduan sartzeko egiazko aukera ematen dutenak. Horiek proiektuaren proposamenean egiaztatu beharko dira. Proposamen horiek Lurralde Plangintzako eta Hiri Agendako Sailburuordetzak eta/edo Lan eta Enplegu Sailak onartutako planekin koordinatu beharko dira.
- Aldi baterako Enplegu-Prestakuntza proiektuak garatu ahal izango dira, proiektu honetan parte hartzen duten pertsonen, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuen bitartez,

lan munduan sartzeko aukera hobea izan dezaten, adierazitako esparru guztietan, baldin eta ezarritako kontsiderazio orokorretara egokitzen badira.

- Tokiko erakunde horiei jarduera programa egiteko ordaindu behar zaizkien laguntza ekonomikoak zuzeneko dirulaguntzak emanez gauzatuko dira.

9. Proiektu kopurua erakunde sustatzaile bakoitzeko:

- Erakunde sustatzaileek aldi berean edo, elkarren segidan, bi urtetan programatutako hiru proiektu eskatu ahal izango dituzte.

10. Proiektuak aukeratzea:

- Oro har, aurrekontu mugarainoko proiektu guztiak onartuko dira, informazio oinarri hauetako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztenak eta egingo den proiektu zehatzaren edo zehatzen exekuzioa arautuko duen ondorengo zuzeneko dirulaguntzan zehazten direnak.
- Eskaerak aurrekontuko mugak gainditzen badituzte, proiektuak honako irizpide hauen arabera aukeratu dira:
 - Lurralde oreka
 - Erakunde onuradunaren baterako finantzazioaren ehunekoa
 - Kalitate teknikoa eta berrikuntza metodologikoa.
 - Inguruan edo udalerrian proiektatutako hiri-berroneratzeko planarekin bat egitea.
 - Proiektua bukatu ondoren, lan munduan sartzeko eta gizarteratzeko konpromisoa.
 - Proiektu osteko kontratazio konpromisoak.

11. Exekuzio-epaia: Proiektuak dirulaguntza ematen den egunetik aurrera abiaraziko dira, eta bukatuta egon beharko dira 2024ko abenduaren 31n.

12. Eskaerak aurkezteko epea: 2022ko ekainaren 30ra arte. Dena dela, ondoren, beste deialdi batzuk egin ahal izango dira.

13. Organo eskuduna, antolakuntza, jarraipena eta baterako finantzazioa:

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak jarduera programa orokorra kudeatzeko eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko organo eskuduna eratuko dute.
- Lurralde Plangintza, Hiri Agenda eta Enplegu eta Inklusio Sailburuordetzei dagokie proiektuen inplementazioa, jarraipena eta kontrola gainbegiratzea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lankidetzan jardungo du Enplegu eta Inklusio Zuzendaritzarekin diruz lagundutako proiektuak gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta exekutatzeko, eta, bereziki, honako zeregin hauek egingo ditu:

- Erakunde interesdunei informazioa eta aholkularitza ematea, proposamenak aurkeztu ditzaten.
- Erakunde interesdunek aurkeztzen dituzten proposamenak baloratzea eta onartzea.
- Proiektuan parte hartuko duten partaideak hautatzea eta proiektuan aukera berdintasunez eta sarrerako baldintzak betez sartzeko aukera ematea. Pertsona onuradunak Lanbiden erregistratuta egon beharko dira aldezturik.
- Prestakuntzaren jarraipena egitea eta ikas-ekinezko kontratuak behar bezala bideratu direla gainbegiratzea.
- Jardueren jarraipen orokorra egitea.
- Lanbidek, Enplegurako eta Inklusiorako Zuzendaritzaren eskaera eta baimena jaso ondoren, zeregin espezifikoak egin ahal izango ditu. jarduerak "in situ" gainbegiratzeko eta kontrolatzeko, tokiko lurralde historikoetako Lanbideren Lurralde Zuzendaritzaren edo erreferentziazko tokiko bulegoen bitartez.

- Emaitzak ebaluatzea
- Dirulaguntzen xedea kontrolatzea eta justifikazio administratiboa edo ekonomikoa egitea
- Enplegurako eta Inklusiorako Zuzendaritzak eta Lanbidek beharrezkotzat jotzen duten informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango diete erakunde onuradunei-sustatzaileei proiektuen garapenari buruz
- Proiektuen jarraipena egiteko, proiektuak gainbegiratzeko eta kontratatze Batzordeak eratu dira, Enplegurako eta Inklusiorako Zuzendaritzako, Lanbideko eta erakunde sustatzaileko kideek osatuko dituztenak.
- Proiektuak aurkezteko memoriaren gidoiari buruzko dokumentuan diruz lagundu daitezkeen kostuak eta diruz lagundu daitezkeen gehienezko zenbatekoak definitzen dira.
- Dirulaguntza onartu eta prestakuntza eta orientazio partidetako ekintzak abian jarri ondoren, ez da zigorrik edo murrizketarik ezarriko uzteengatik, baldin eta uzte horiek hasi eta bi aste baino beranduago gertatzen badira eta ordezkatzeko ezinezkoa bada. Kontratuei dagokienez, baja aurreratuen kasuan, indarraldi osoa ordainduko da bukatzeko egunera arte. Baja aurreratuak behar bezala arrazoituta egon beharko dira aldez aurretik bukatu ahal izateko, eta exekutatuak denbora errearen kostua bakarrik finantzatu da.
- Proiektuak batera finantzatu ahal izango dituzte erakunde sustatzaile onuradunek.

14. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta gehienezko zenbatekoak partiden arabera.

- Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta aplikatu daitezkeen gehienezko zenbatekoak 1. Eranskinaren 14. atalean ("jardura proposameneren edukien gidoiak") (*) zehazten dira.
- Kostu sinplifikatuen eredia erabiliko da eta, hala badagokio, erakunde kontratatzaileen ordainsarien hitzarmenak.

15. Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.- Dirulaguntzen onuradun den erakundeak diruz lagundutako jardueren eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du, moduluen araubidearen bidez, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudiaren 69 eta 76-79 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango ditu, kontratazioak bukatzen direnetik kontaktzen hasita.

Justifikazio horretan erakunde onuradunak aurkeztu beharko duen dokumentazio hau jasoko da:

- a) Egindako ekintzen eta lortutako emaitzen jardura memoria. Memorian, gutxienez, honako hauek jasoko dira:
 - Egin diren eta komunitatearen interesekoak diren jardueren deskribapena, ebaluazioa, hasieran aurreikusitako helburuen betetze maila eta parte hartu duten langileen gogobetetze inkesta.
 - Parte hartu duten eta egin diren ekintzen zerrenda, Lanbidek emandako ereduaren arabera.
 - Partaide bakoitzak sinatutako laburpen fitxa, prestakuntza zerbitzuak jaso direla justifikatzen duena. Emandako ordu kopurua jaso beharko da.
 - Partaide bakoitzak sinatutako laburpen fitxa, orientazio zerbitzuak jaso direla justifikatzen duena. Zerbitzu hau bideratzeko ordu kopurua jaso beharko da.
 - Proiektuak iraun duen 6 hilabeteetan, monitore/enkargatu, orientazio eta laguntza lanak egin dituzten pertsonen zerrenda.
- b) Parte hartzen duten pertsonen lan kontratuei dagokienez, erakunde onuradunaren idazkaritza/kontu-hartzailetza funtzioak egiten dituen pertsonak gastuari buruz egin duen egiaztagiria aurkeztu beharko da, tokiko erakundeen edo sektore publikoak diren erakundeen kasuan. Gainerako erakundeek egindako gastua eta kontzeptu hori dela eta egin diren gastuak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- c) "Beste kostu espezifiko batzuk" atalean sartutako gastuen xehetasuna, baldin eta gastu horiek egin badira. Horretaz gain, fakturak eta gastuak egin izanaren ordainagiria aurkeztu beharko dira, baita gastu horiek egiteko beharra justifikatzen duen memoria ere.

- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste gastu edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Azpikontratatu diren jardueren xehetasunak.
- f) "Kalte esanguratsurik ez egiteko" printzipioa ("do no significant harm-DNSH" printzipioa), eta horren inplementazioa segurtatzeko neurri zuzentzaileak.

2.- Erakunde onuradunek bost urtez gorde beharko dituzte justifikaziorako dokumentuak eta finantzazioari buruzko gainerako dokumentazio guztia, eragiketa hori egiten denetik aurrera, edo hiru urtez, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, Europako Parlamentuaren (EB, Euratom) eta Kontseiluaren ("Finantza Erregelamendua") uztailaren 18ko 2018/1046 Araudiaren 132. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3.- Dokumentazioa aurreikusitako epean aurkezten ez baldin bada edo dokumentaziotik ondorioztatzen baldin bada justifikatutako zenbatekoa aurrerakin gisa jaso dena baino txikiagoa dela, abian jarriko da dirulaguntza itzultzeko prozedura, aurreikusitako prozeduraren arabera.

(*) 1. ERANSKINAREN 14. atala: "jarduera proposameneren edukiei buruzko gidioa" (*)

14. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eta partiden arabeko gehieneko zenbatekoen aurrekontu-laburpena.

Hasierako taldeko prestakuntza.

(110 €/h x prestakuntza ordu kopurua).

Prozesuan zehar orientatzea eta laguntzea

(34 €/h x banakako 10 h x partaide kopurua)

Kontratuak dirauen bitartean prestakuntza eskaintzea

(Guztizko iraupena kontratatzen duen erakundearen lan hitzarmenean ageri den lanaldiaren % 35ekoa izango da 10 hilabeteko lanerako. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko kostua: 110,00 € x eskaintako prestakuntza orduak).

Koordinatzailea / Taldeko arduraduna lanpostuetan

(Gehenez ere, 33.250,00 €-ko dirulaguntza soldataren + gizarte segurantzaren kosturako, 10 hilabeteko lana lanaldi osoan).

Parte hartzeko pizgarriak:

(Garraiorako edo hasierako ikastaroan sortzen diren beste gastu batzuetarako beka. 9 € eguneko x 40 egun x taldeko pertsona kopurua. 2 hilabeteko hasierako prestakuntza aldiaren bakarrik aplikatu ahal izango da).

Ikas-ekinezko prestakuntzan parte hartuko dutenen kontratazioen kostua

(Urteko soldata aparteko ordainsariekin, kontratatzen duen erakundearen lan hitzarmenaren arabera, 10 hilabeteko kontratuari aplikatuta x lanaldiaren 0,75 x taldeko pertsona kopurua).

Gizarte Segurantzaren kostuak, enpresarenak, partaide taldeari dagozkionak

Zeharkako kostuak.

(Aurreko partidetan aurreikusi ez diren zeharkako beste kostu batzuk eta proiektua bideratzeko behar-beharrezkoak direnak. Gehenez ere, aurreko partiden guztizko baturaren % 3raino).

Finantzazioa eta baterako finantzazioa.

Eskatutako dirulaguntza 14. atalean zehazten diren kostu diruz lagungarrien % 100eraino iritsi ahal izango da, baldin eta, partiden arabera, gehieneko zenbatekoak gainditzen ez badira

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LAS ENTIDADES DEBEGESA, EDUKEIBAR, EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS Y EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR, PARA EL DESARROLLO DE UN PROYECTO DE FORMACIÓN, EMPLEO, ORIENTACIÓN Y ACOMPAÑAMIENTO PARA LA INCLUSIÓN SOCIOLABORAL, VINCULADO AL PROYECTO DE REGENERACIÓN URBANA INTEGRAL EN EL MARCO DEL PLAN DE INVERSIONES ESTRATÉGICAS DE EUSKADI 2022-2024, "DEBABARRENA BERRITZEN".

En Eibar, a 21 de diciembre de 2022

REUNIDOS

De una parte, D. IKER ALDAZABAL BASAURI, en nombre y presentación del AYUNTAMIENTO DE SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS (en adelante, **AYUNTAMIENTO DE SORALUZE**), con domicilio en Santa Ana Kalea, 1, 20590 Soralue-Placencia de las Armas, con NIF P2007000I. Actúa en su condición de Alcalde de la corporación municipal, haciendo suyas las facultades de representación legal de la entidad que le confieren las disposiciones normativas vigentes.

DOÑA ANE BEITIA ARRIOLA, en nombre y presentación del AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR, (en adelante, **AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR**) con domicilio en Santa Ana Kalea, 2, 20870 Elgoibar, con NIF P2003300G. Actúa en su condición de Alcaldesa de la corporación municipal, haciendo suyas las facultades de representación legal de la entidad que le confieren las disposiciones normativas vigentes.

DON JUAN ÁNGEL BALBÁS EGЕA, mayor de edad, DNI núm. 15930185V, interviniendo en calidad de Director General de la entidad en virtud de escritura de 23 de febrero de 1989, otorgada ante el Notario de Eibar, D. Carlos del Valle Muñoz-Cabo, en nombre y representación de DEBEGESA, SOCIEDAD PARA EL DESARROLLO ECONÓMICO DE DEBABARRENA, SA (en adelante, **DEBEGESA**), con domicilio en Polígono Industrial Azitain 3 Bis, 20600 Eibar, Guipúzcoa., NIF núm. A-20098349.

DON ASIER QUINTANA LARREATEGUI, con DNI número 15375930Q, interviene en nombre y representación de la compañía mercantil EDUKEIBAR. S.L.U.. (en adelante **EDUKEIBAR**), con CIF: B75175422, domiciliada: Azitain. 3-1º, 20600 EIBAR, Gipuzkoa, en calidad de responsable.

Las personas comparecientes manifiestan que sus facultades no les han sido revocadas, limitadas ni suspendidas y que no han variado las circunstancias de capacidad de sus entidades representadas.

Se reconocen recíprocamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto,

EXPONEN

I. Que el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece que son convenios aquellos acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las entidades del sector público con sujetos de derecho privado para un fin común.

